

**ALKATETZA
DEKRETUA**
2020 000001112**Espediente-zenbakia:** 2020/IDA_DEK0575**Xedea**

COVID-19 birusaren ondorioz Kontingentzia Plana onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu duen egoeraren aurrean, Lehendakariak, martxoaren 13ko 6/2020 Dekretua eman zuen, Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak beregatzeko.

Bigarrena: COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu zen.

Hirugarrena: 2020ko maiatzaren 7an, idazkari nagusiak, COVID-19aren ondoriozko Kontingentzia Plana prestatu du.

Laugarrena: 2020ko maiatzaren 7an, Idazkaritza Saileko AOTk erabaki proposamena egin du.

Argudioak

Lehenengoa: COVID-19ak sortutako osasun egoeraren ondorioz, Bermeoko Udala normaltasunera heltzeko Kontingentzia Plana onartzea beharrezkoa ikusten da.

Bigarrena: Erabakia hartzeko ahalmenari dagokionez, Toki Entitateen Erregimenaren oinarriak onartzen dituen 7/1985 Legearen 21.1. m) artikulua araberak, alkateari dagokio, beti ere Osoko Bilkurari erabaki horren berri emanda egiten den lehenengoko batzarrean.

Erabakia


Hori guztia dala eta, honakoa erabaki dut:

LEHENENGOA: COVID-19ak sortutako osasun egoeraren ondorioz, Bermeoko Udala normaltasunera heltzeko Kontingentzia Plana onartzea, I. eranskinean agertzen den moduan.

**Sinadurea eta data**

BIGARRENA: Udaleko sail guztieri erabakiaren berri ematea eta udalaren webgunean argitaratzea.

HIRUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkurean erabakiaren berri ematea.

 <p>STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI</p>	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E40004242E00J8M0C7T0F7C8</p>	<p>Sinadurea eta data</p> <p>ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 08/05/2020 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/05/2020 15:25:10</p>	<p>EXPEDIENTE :: 2020IDA_DEK0575</p> <p>Fecha: 07/05/2020 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia</p>
---	--	--	--



I. ERANSKINA

COVID19a dela eta Bermeoko Udala normaltasunera heltzeko kontingentzia plana

Bizi dugun osasun emergentzia dela eta, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bitartez alarma egoera adierazi zen. Errege Dekretu horren ondorioz eta ondoren onartutako hainbat eta hainbat errege dekretu, errege lege dekretu, instrukzio, ebazpen, agindu eta gainerako arauen ondorioz udal mailan hainbat eta hainbat neurri eta erabaki hartu dira.

Momentu honetan Gobernuak normaltasun berrira bueltatzeko plana iragarri du, 5 faseetan bereizita. Fase bakoitzak hurrengo ezaugarriak izango ditu:

- *Fase 0 o de preparación de la desescalada: Es la situación a fecha de hoy, caracterizada por el establecimiento de medidas de alivio, fundamentalmente en el ámbito privado, y medidas con un riesgo asociado de contagio muy bajo o nulo.*
- *Fase I o inicial: Apertura parcial de actividades, fundamentalmente de baja afluencia y contacto.*
- *Fase II o intermedia: Apertura parcial de otras actividades, fundamentalmente de concurrencia pública, con limitaciones de aforo.*
- *Fase III o avanzada: Apertura de todas las actividades, pero con las medidas oportunas de seguridad y distancia y aforos limitados.*
- *Nueva normalidad: Terminan las restricciones sociales y económicas, pero se mantiene la vigilancia epidemiológica, la capacidad reforzada del sistema sanitario y la autoprotección, tanto laboral como privada.*

Dagokion agintariak hartuko du fase batetik bestera igarotzeko erabakia, Osasun Ministeriok zehaztutako baloreak betetzen badira. Planaren III. Eranskina ikusita eta



governuaren adierazpen ofizialak kontuan izanda, daten eszenatoki onena hauxe litzateke:

- 0 Fasea Maiatzak 4
- 1. Fasea Maiatzak 11
- 2. Fasea Maiatzak 25
- 3. Fasea Ekainak 8
- Normaltasun berria Uztailak 1

Horregatik, Bermeoko Udalak planifikatu eta antolatu behar ditu normaltasunera bueltatu arte hartu beharreko neurriak eta erabakiak. Eta hain zuzen ere, horixe da agiri honen helburua.

Barnera begira 22 egiteko kontuan izan behar dira: ¹

1. Udal zerbitzuen instalazioak zabaltzea (Lan taldea)
2. Zerbitzu publikoak ematea berrabiaraztea (Lan taldea- Idazkaritza saila)
3. Udal bulegoak zabaltzea (Lan taldea- Langileria- ATB sailak)
4. Administrazio epeak berrabiaraztea edo zabaltzea (Idazkaritza saila)
5. Diru-laguntzak: deialdiei ekitea eta COVID19 dela eta diru-laguntza berriak emateko aukerak aztertzea (Ekonomia saila)
6. Lizitazio publikoak guztiz berrabiaraztea (Idazkaritza saila)
7. Indarrean egon diren kontratu publikoak berrabiaraztea (Idazkaritza saila)

¹ Parentesi artean ekintza burutzearen ardura izango duen saila zehaztu da.

	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E40004242E00J8M0C7T0F7C8</p>	<p>Sinadurea eta data ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 08/05/2020 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/05/2020 15:25:10</p>	<p>EXPEDIENTE :: 2020IDA_DEK0575 Data: 07/05/2020 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia</p>

8. Etendako kontratuen kalte-ordainak zehaztea eta ordaintzea (Idazkaritza-Ekonomia sailak)
9. Langileak telelanarekin jarraitzea (Langileria saila- Arrisku saila)
10. Langileak lanera itzultzea modu presentzialean (Langileria-Arrisku sailak)
11. Berresleipena eta funtzio berriak ematea enplegatu publikoei (Langileria saila)
12. Hautaketa prozesuak berrabiaraztea eta hastea (Langileria saila)
13. Ekintza kulturalak, kirol ekintzat eta gainerakoak antolatzea, atzeratzea edo bertan behera uztea (Herritarrak guneko sailak)
14. Funtzionamendu eta prozedura elektronikoen balorazioa egitea (ATB saila)
15. Saio telematikoen funtzionamendua (Idazkaritza saila)
16. Datu pertsonalak babestea (ATB saila)
17. Epe prozesalak eta epaitegiko ekintzak berrabiaraztea (Idazkaritza saila)
18. Tributu arloko epeak eta berrabiaraztea (Ekonomia saila: Errentak)
19. Aurrekontuan egokitzapenak egitea (Ekonomia saila)
20. Gardentasuna eta informazioa jasotzea (ATB saila)
21. Hartutako erabakiak bertan behera uztea edo egoera berriaren publizitate ematea (Idazkaritza saila)
22. Egoeraren balorazio orokorra egitea eta hobekuntza plana diseinatu eta exekututzea (Idazkaritza-Sail guztiak)



1. Udal zerbitzuen instalazioak zabaltzea

Osasun Ministerioak onartuko dituen arauen arabera eta onartzen diren gainerako arauen arabera itxita dauden hurrengo eraikinak apurka-apurka zabaldu behar dira:

- Kiroldegia
- Futbol zelaiak
- Frontoiak
- Gainerako kirol instalakuntzak
- Kultur etxea
- Hermanoetako gelak
- Liburutegia
- Artxiboa
- Musika eskola
- Lanbide Heziketa
- Berhaz
- Arreta zuzeneko gainerako eraikinak (GOUPEko arrera zuzena, diru-bilketa Intxaustin; errolda kultur etxean, Berualako S.A.ko arrera zuzena...)

Udalak berau antolatzeko duen ahalmenaren barruan, ezarri beharko ditu zein baldintzetan zabaldu eta erabiliko diren eraikinok: aforoak, ordutegiak, garbitasun neurriak, segurtasun neurriak...

Eraikinez gain, erabilera publikoko guneak ere zabaldu beharko dira horretarako agindua ematen denean:

- Umeen jolasguneak
- Hondartza



2. Zerbitzu publikoak ematea berrabiaraztea

Udal eraikinak zabaldu ahala, zerbitzu publikoak berrabiarazten hasi beharko da. Kasu honetan ere zerbitzu publikoak eman beharko ditugu Osasun Ministeriok emandako aginduen arabera eta onartzen diren araudien arabera.

Udalak zehaztu beharko du zein baldintzetan berrabiaraziko diren zerbitzu horiek (aforoak, ordutegiak, hartu beharreko segurtasun neurriak, herritarrekin arreta zuzena dagoenean hartu beharreko segurtasun neurriak...)

8/2020 Errege Lege Dekretuarekin bat etendako kontratuen kasuan, zerbitzuak berrabiarazteko dagokion erabakia hartuko da kontratuen etena altxatzeko eta zerbitzua ematen jarraitzeko. Kasu horietan ere, kontratistei jakinarazi beharko zaie zein baldintzetan berrabiarazi beharko diren kontratu horiek.

Behin zerbitzua berrabiarazita, Udalak baldintzak eta neurriak betetzen direla egiaztatzeko jarraipena egin beharko du (bai zuzenean, bai zeharka emandako zerbitzuetan).

3. Udal bulegoak zabaltzea

Gaur egun, oro har, arreta zuzeneko zerbitzuak telematikoki ematen ari gara. Hala ere, asteen baten, salbuespeneko kasuetan eta hitzordua aurretiaz hartuz harrera presentziala ematen den. Alarma egoera altxatuta edo deseskalatzearen faseren batean, arreta zuzeneko zerbitzuak kasu orokorretarako ere berrabiarazi beharko dira eta berrabiarazi hori planifikatu behar da: Noiz irekiko den, herritarrek zein baldintza bete behar duten, ordutegiak zeintzuk izango diren...



Izan ere, Berhaz izango da herritar gehien jasoko duen gunea, herritarrei arrera zuzena egiten dion gunea baita. Horregatik, segurtasun neurri guztiak bermatuta, zerbitzua bermatu behar da; izan ere, telematikoki Udalarekin erlazionatzeko aukera ez duten herritarren eskubidea ahalbideratu behar da.

Horretarako, adibidez, sistema mistoa ezarri daiteke: presentziala-telelana. Eta langileen errotazio eta, gaur egun daukagun moduan, hitzorduen sistema mantendu daiteke, horrela, aglomerazioak saihestuz. Horretaz gain, gune komunetan neurriak ezarri daitezke eta barrera fisikoak jarri.

Arrisku teknikariak lagunez languneko azterketa egingo du. Hortik langune bakoitzean egin beharreko egokitzapenak zehaztuko dira.

4. Administrazio epeak berrabiaraztea edo zabaltzea

463/2020 Errege Dekretuak epeen etetea eta geldiaraztea jaso zuen 3. Xedapen Gehigarrian. Horrek suposatu izan du, zenbait tramite gelditu direla, batez ere, hirugarrenetik eragin kaltegarriak izan dituztenak edo hirugarren parte hartzea suposatu izan dituztenak. Hala ere, barnera begirako lanarekin jarraitu da.

Alarma egoera altxatzean edo arinago horrela arautzen bada, administrazio epeak berrabiarazi edo kontatzen hasiko dira.

Horretarako, kontuan izan behar da barnera begira jakinarazi beharko dela epeen inguruan zein irizpide jarraitu behar den:

- Irekita egon diren epeak berrabiaraziko diren, zerotik zenbatzen hasiko diren edo inoren interesak kaltetzen ez badira luzatuko diren (39/2020 Legearen 32. artikulua arabera) zehaztu beharko da. Hartzen diren erabakien inguruan publikitatea eman beharko da.
- Errekurtsoak jartzeko epeak zeintzuk diren zehaztu beharko dira (11/2020 Errege Dekretuaren 8. Xedapen Gehigarriarekin bat) eta jakinarazpenekin batera igorri.



- Jakinarazpen guztiak egin behar dira.
- Publikatu beharreko erabaki guztiak argitaratu beharko dira (BAOn, kontratugilearen profilean...).

5. Diru-laguntzak: deialdiei ekitea eta COVID19 dela eta diru-laguntza berriak emateko aukerak aztertzea

Alarma egoeraren bitartean, diruz laguntzeko izan diren zenbait ekintza ezin izan dira burutu. Horregatik, 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 57.artikuluaren arabera, alarma egoera adierazi zenean esleituta egon diren diru laguntzak aldatu daitezke ekintzak egikaritzeko epeak, justifikatzeko epeak eta egiaztatze epeak luzatzeko. Horrelako kasurik balego, Tokiko Gobernu Batzarrak justifikatu beharko luke ezinezkoa litzatekeela dagokion epean ekintzak egikaritzea, justifikatzea edo egiaztatzea eta deialdiak aldatzeko erabakia hartu beharko du.

Interes publikoen, sozialen, ekonomikoen, humanitarioen edo bestelakoen ondoriozko diru-laguntzen kasuan, interesdunak eskatu beharko luke Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki hori hartzea, salbu eta elkartearen funtzionamendu gastuak diruz laguntzen direnean.

Bermeoko Udalean momentu honetan 2020ko diru-laguntzen deialdiak onartu eta argitaratu gabe daude. Deialdi horiek egitean kontuan izan beharko dira COVID19aren ondorioak ekintzen egikaritze epeak zein diru-laguntzen justifikazio eta egiaztapen epeak zehazterakoan.

Komenigarriena diruz lagunduko diren elkarten egoera ezagutzeko, eurekin kontaktuan jartzea da.

**Sinadurea eta data**

Horretaz gain, Udalak aurreikusi ditzake diru-laguntza lerro berriak etorriko den gizarte krisia eta krisi ekonomikoa arintzeko. Horrela, Udalak bere eskumenen barruan diru-laguntza berriak eman ahalko ditu, beti ere ahalmen ekonomikoaren arabera eta aurrekontu-egonkortasuna zalantzan jarri gabe.

6. Lizitazio publikoak guztiz berrabiaraztea

Nahiz eta legez lizitazio publikoak guztiz elektronikoak izan behar diren, erregela orokor moduan alarma egoeran lizitazio publikoak etetea arautu zen. Bermeoko Udalak justifikatutako kasu gutxi batzuetan aurrera egin du lizitazioarekin. Baina beste askotan espedienteak etenda gelditu da. Dena den, kasu guztietan barne izapideekin jarraitu da; horregatik, 2020ko maiatzaren 6an 17/2020 Errege Lege Dekretuaren 8. Xedapen gehigarriaren bitartez lizitazio publikoen epeen etetea altxatu da, eta ondorioz, hasita egon diren lizitazioekin fase guztietan jarraitu ahal izango da (dagozkion argitalpenak kontratugilearen profilean edo Europako Aldizkari Ofizialean argitaratuta; errekerimenduak eginda...) eta lizitazio berriei ekin ahalko zaie.

Komenigarria da kontratu publikoei lehentasuna ematea, besteak beste, berraktibazio ekonomikoari lagundu ahal izateko. Baina ezin da ahaztu Udalaren egoera ekonomikoa ere makaldu daitekeela, eta horregatik, COVID19ren ondoriozko eragin ekonomikoak kontuan izan beharko dira lizitazio berriak martxan jartzeko orduan edo hasitako espedienteak bertan behera uzteko orduan. Hori dela eta, kontratazioko plangintza eguneratu beharko da.

Bermeoko Udalak egoera honekin lotutako hainbat kontratazio emergentziatzko prozeduraren bitartez egin izan ditu, martxoaren 12ko 7/2020 Errege Lege Dekretuarekin bat. Horiei dagokien publizitatea eman beharko zaie kontratugilearen profilean.

Ezinbestekoa da etorkizunean osasun emergentzia honi edo beste batzuei aurre egiteko beharrianak aurreikustea eta lizitazio arrunten bitartez egiteko espedienteak zabaltzea.



7. Indarrean egon diren kontratu publikoak berrabiaraztea

8/2020 Errege Lege Dekretuaren 34. artikulua araberan, COVID19a dela eta zenbait kontratu publiko (etengabe emateko zerbitzu edo hornidurak edo exekuzioa ezinezkoa zuten kontratuak) osorik edo zati batez eten egin ziren. Batzuk ofizioz, beste batzuk enpresen eskaeran ondorioz.

Udalak argitu behar du zein egoeratan dauzkan kontratuak, osorik edo zati batez etenda badaude kontratuok eta noiz berrabiarazi daitezkeen deseskalatzearen faseak ikusita.

Kontratuaren etetea altxatzea alkatetza dekretuz egin beharko da eta kontratistari jakinarazi beharko zaio osasun emergentzia dela eta baldintza edo neurri berezirik bete behar duen. Gainera, neurri eta baldintza horiek betetzen direla konprobatu beharko da.

8. Etendako kontratuen kalte-ordainak zehaztea eta ordaintzea

Behin kontratuen etetea altxatuta kontratisten kalte-ordainen eskaerak jasoko dira. Horretarako, argi izan behar da 8/2020 Errege Lege dekretuaren 34. artikuluan jasotzen dena. Artikulu horrek dio kalte-ordain moduan ulertuko dira soilik hauexek:

- 1. Los gastos salariales que efectivamente hubiera abonado el contratista al personal que figurara adscrito con fecha 14 de marzo de 2020 a la ejecución ordinaria del contrato, durante el período de suspensión.*
- 2. Los gastos por mantenimiento de la garantía definitiva, relativos al período de suspensión del contrato.*
- 3. Los gastos de alquileres o costes de mantenimiento de maquinaria, instalaciones y equipos relativos al periodo de suspensión del contrato, adscritos directamente a la ejecución del contrato, siempre que el contratista acredite que estos medios no pudieron ser empleados para otros fines distintos durante la suspensión del contrato.*



4. Los gastos correspondientes a las pólizas de seguro previstas en el pliego y vinculadas al objeto del contrato que hayan sido suscritas por el contratista y estén vigentes en el momento de la suspensión del contrato.
5. Los gastos salariales a los que en él se hace alusión incluirán los relativos a las cotizaciones a la Seguridad Social que correspondieran.
6. En caso de suspensión parcial, los daños y perjuicios a abonar serán los correspondientes conforme al presente apartado de este artículo a la parte del contrato suspendida.

Horretaz gain, maiatzaren 6ko 17/2020 Errege Lege Dekretuaren 9. Azken Xedapenak Kalte-ordainen inguruko argibideak arautu ditu.

Kontuan izan behar da Errege Lege Dekretuak indarrean dauden kontratuei buruz hitz egiten duela eta kalte-ordainen eskaerakin batera aurkezten den dokumentazioa ondoren egiaztatu daitekeela. Horregatik, Udalak, eta konkretuki, kontratuaren arduradunak eta kontuhartzaileak eska ditzakete kalte-ordainaren gastu horiek egiaztatzeko agiriak aurkeztea.

Kasu honetan, egokiena kalte-ordainen eskaerarako eredu bateratua egitea da eta bertan eman beharreko informazioa eta erantsi beharreko agiriak zehaztea, lizitatzailerek kalte-ordainik eskatzen badute, modu bateratuan jarduteko.

9. Langileak telelanarekin jarraitzea

8/2020 Errege Lege Dekretuak lehenengo eta 15/2020 Errege Lege Dekretuak ondoren telelana lehenestea arautu dute, hain zuzen ere, azken errege lege dekretu hau indarrean sartu eta beste bi hilabeteko epean; hau da, ekainaren 21era arte, behintzat. Bermeoko Udalak alarma egoera adierazi zenetik telelanari lehentasuna eman dio; ezin da ahaztu, alarma egoera honetaz gain, telelana Udalak onartuta duen aukera dela, bere auto-antolaketarako ahalmenaren barruan.

Egoera honetan, eta langileen arteko distantzia bermatzeko edo lantokian pertsona asko egotea ekiditeko, telelana eta lana distantzian egitea lehenetsi behar dira.



Deseskalatzearen prozesuan eta normaltasunera iristean argi izateko, Udalak protokolo bat landu beharko du telelanaren bitartez edo distantzian lan egiteko lanpostuak zehaztuz, beti ere, zerbitzuaren funtzionamendu egokia bermatuta eta segurtasuna eta datu pertsonalak bermatuta. Aukera legoke, beharrezko kasuetan sistema misto bat ezartzeko, telelana eta lan presentziala jasotzen duena.

Langileria sailak eta arrisku sailak egikaritu behar duten protokolo horretan, sail bakoitzeko sailburu tekniko eta politikoek eta ordezkariak sindikalak parte hartu beharko dute.

10. Langileak lanera itzultzea modu presentzialean

Nahiz eta Bermeoko Udaleko, erakunde autonomoetako eta sozietate publikoko langile asko telelanaren bitartez lan egiten egon, ezinbestekoa da sailaren funtzionamendua telelanaren bitartez baloratzea eta telelanaren edo distantzian lan egin ezin dutenen langileen egoera aztertzea.

Hurrengo lanpostuak bereiz ditzakegu (873 eta 909 Alkatetza Dekretuekin bat):

- Telelana egin dezaketen oinarrizko lanpostuak
- Telelana egin dezaketen oinarrizkoak ez diren lanpostuak
- Telelana egin ezin duten oinarrizko lanpostuak
- Telelana egin ezin duten oinarrizkoak ez diren lanpostuak
- Nahiz eta telelana egin batzuetan presentzialki lan egin behar dutenak

Langileen laneratzeko proposamen bat aurkeztuko da deseskalatzeko faseetan oinarrituta eta ezarritako unean uneko neurriak aintzat hartuz, eguneratuz joango da proposamen hori.

Presentzialki lan egiteko erabakiak hartu orduko eta langileak laneraztea orduko, lan arriskuei buruzko ebaluaketa egin behar da eta zehaztu zein exekutatu behar dira neurriak langileen segurtasuna eta osasuna erabat babesteko. Gainera, postu



bakoitzarekiko arriskua ikusita, babes indibidualeko neurri egokiak eta proportzionalak ezarri beharko dira.

Horretarako, lan arriskuen teknikariak dagozkion neurriak proposatu beharko ditu, beti ere, Osasun Ministeriok eta gainerako agintariek emandako irizpideekin bat. ²

Azken finean, giza baliabideen inguruan alarma egoeran hartutako neurriekin egin zen bezala, beharrezkoa izango da lanpostuak aztertzea hurrengoan arabera: eman beharreko zerbitzuen arabera, funtzioen arabera, zerbitzuak erarik onenean emateko daukaten eraginaren arabera eta herritarrengan daukaten eraginaren arabera.

Izan ere, 3. Ekintzan komentatu den moduan, arreta zuzeneko lanpostuen kasuan, adibidez, langileren bat presentzialki jardun beharko du, behintzat zerbitzu minimoetan, eta kasu horretan gutxieneko neurriez gain, hitzorduan ezartzea, gune komunetan neurriak ezartzea, eta barrera fisikoak jartzea komenigarri ikusten da.

Kasu horietan, orain arte moduan, ezinbestekoa da herritarrei bide telematikoak erabiltzeko deia egitea.

Langileak laneratu ahala ezinbestekoa da udal eraikinetatik ateratako espedienteak itzultzeko agindua ematea eta espedienteak egoera onean eta osorik daudela konprobatzea.

Gainera, martxoaren 13ko 761/2020 Alkatetza Dekretuz COVID-19 ondorioz lana eta familia bateragarri egiteko neurriak onartu ziren. Dekretu horretan zehaztu zen

² Eredutzat dago Osasun Ministeriok argitaratutako «*Guía de buenas prácticas en los centros de trabajo*» eta «*Instrucción de la Secretaría General de Función Pública sobre medidas y líneas de actuación en materia de prevención de riesgos laborales frente al COVID-19 de cara a la reincorporación presencial del personal*».



“Koronavirus-aren (COVID-19) ondorioz sortutako kontziliazio-arazoei aurre egiteko eta egoera horrek dirauen bitartean” egongo zirela indarrean. Horregatik, zehaztu beharko da indarraldi hori noiz bukatzen den edo luzatuko den.

11. Berresleipena eta funtzio berriak ematea enplegatu publikoei

11/2020 Errege Lege Dekretuak 18. Xedapen Gehigarrian aurreikusi du enplegatu publikoek jatorrizko administrazioan edo beste batean parte hartzeko eskaera egin lezaketela, COVID19a dela eta errefortzua behar izan duten guneetan. Kasu horietan jatorrizko lanpostuaren ordainsariak jasoko dituzte, bere egoera administratiboan ezta kontratuan aldaketarik izan barik.

Aukera hori alarma egoera irauten duen bitarterako aurreikusten da. Baina, Udalaren auto-organizaziorako ahalmenen barruan, langilearen adostasuna badago eta nagusiaren oniritzia badauka, ulertzen da jarraitasuna izan dezakeela behin alarma egoera altxatuta ere; beti ere, alarma egoerak sortutako egoerei aurre egiteko bada.

12. Hautaketa prozesuak berrabiaraztea eta hastea

Udalak hasita (idazkaritzako AOT lanpostua) edo hastear (kamio gidariak, peoiak...) dauzkan hautaketa prozesuetan, aztertu behar da zein egoeratan dauden eta zenbait hautagaiak parte hartzeko aurreikuspena dagoen, beharrezko segurtasun eta osasun neurriak hartu ahal badira edo ez zehazteko. Kasu batzuetan, hautagai asko badaude eta distantziak bermatzea ez denean posible izango, prozesuak atzeratu edo eten beharko dira. Posible den kasuetan beste aukera bide telematikoen bitartez azterketak egitea da, baina horretarako beharrezko neurriak hartu beharko dira; batik bat, presentzialki egingo balira bete beharreko bermeak eta baldintzak betetzeko.

Lan eskaintza publikoan sartutako lanpostuen kasuan kontuan izan behar da 3 urteko epean exekutatu daitezkeela.



Horretaz gain, kontuan izan behar da Bermeoko Udalak COVID19aren ondorioz etorkizunean beharizan bereziak izan ditzakeela. Adibidez, garbitasunean, desinfekzio lanetan, gizarte zerbitzuetan... Horiei aurre egiteko, baliabide propioekin nahikoa ez bada, aldi baterako programen bitartez kontratazioak egiteko aukera legoke.

13. Ekintza kulturalak, kirol ekintzat eta gainerakoak antolatzea, atzeratzea edo bertan behera uztea

Bermeoko Udalak ekintza kultural, kirol ekintza eta aisialdiko bestelako ekintza (*Jazzber...*) ugari antolatzen edo babesten ditu. Gainera, garai honetan hainbat jai egun ere daude (San Juan, San Pedro, Madalenak, Andra Mariak...).

Udalak egutegia berrikusi beharko du eta azertu COVID19ak izan ahal duen eragina aurreikusitako ekintza eta jai egun horietan. Erabaki beharko du ekintza eta jai egunak mantentzea (beharrezko segurtasun neurriak bermatuta), atzeratzea edo bertan behera uztea.

14. Funtzionamendu eta prozedura elektronikoen balorazioa egitea

COVID19ren ondorioz, 2020ko urriaren 2tik derrigorrezkoa izango den betebeharraren exekuzioa aurreratu da eta telelanaren bitartez %100ean elektronikoki lan egiten gaude.

Izan ere, prozedura elektronikoetan aurrerapauso asko emanda izateagatik eta baliabide teknikoak prest izateagatik, lortu da garai honetan telelanaren bitartez lan egitea eta udalaren funtzionamendua bermatzea.

Horregatik, momentu egokia da martxan izan den eta momentu honetan areagotu den e-administrazioaren diagnostiko orokorra egiteko eta e-administrazioaren inguruan izan den aurreikuspena egokitzeko. Langile askok eta askok izan duten esperientzia aprobetxatu dezakegu, eta egoera honetan izandako ahultasun, mehatxu, indargune eta aukerak jasota beharrezko hobekuntzak egin ditzakegu (automatizazioak, bikoizketak kendu...).



Bizitzen ari garen egoerak erakutsi du, bai teknikoki, bai pertsonalki prestatuta egon garela administrazio elektronikoa hartzeko, elektronikoki funtzionatzeko eta aldaketei aurre egiteko. Eta are gehiago, herritar asko eta asko konturatu da elektronikoki komunikatzeak ematen dituen aukera eta onurak zein diren. Eta hori guztiagatik, bai *ad intra*, bai *ad extra* aukera horiek aprobeztatu behar ditugu.

15. Saio telematikoen funtzionamendua

Toki Erakundearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 46. artikuluan 3. atala sartu da, bizi dugun moduko salbuespeneko egoeretan saio telematikoak egin ahal izateko.

Behin alarma egoera altxatuta osasun agintariak gizartearen distantzia bermatzeko neurriak hartzea eskatzen badute, behintzat, mantendu ahal dira saio telematikoak. Beti ere, alkatetzak horrela justifikatuta eta presentzialki parte hartzeak osasunean arriskua suposatuta ahal badu.

Zentzu berean interpretatu beharko genuke Informazio Batzorde, Tokiko Gobernu Batzar, kontratazio mahai, Zuzendaritza Batzorde, Batzorde Artezkari, Administrazio Kontseilu, Batzar Nagusi, koordinazio bileren kasuan. Izan ere, Bermeoko Udalak badauka baliabide tekniko batzar eta bilera horiek telematikoki modu seguruan egiteko.

16. Datu pertsonalak babestea

Alarma egoera honetan eta osasun emergentziari aurre egiteko, Udalean zenbait datu pertsonal erabili izan dira. Adibidez, nagusien zerrendak, boluntarioen zerrendak... Datu pertsonalen araudiak baimentzen du datu horiek erabiltzea pertsonen bizitzako interesak babesteko, osasun arloko interes orokorra bermatzeko edo lan arloko betebeharrak betetzeko. Baina ezin da ahaztu datu horiekin Datu Pertsonaren Araudi Orokorra eta Datu pertsonalen eta Eskubide Digitalen Lege Organikoak ezarritako printzipioak errespetatu behar dituela, eta konkretuki: gutxieneko datuak bakarrik jasotzea,



helburuekin bat etortzea datuok eta datuak beharrezko denboran bakarrik kontserbatzea.

Udalaren ekintzen erregistroan, erregistro berria jaso behar da datu pertsonalak jasotzen dituen ekintza berri bakoitzeko. Adibidez, nagusiei arreta berezia egiteko erregistroa edo egoera honen ondorioz sortutako boluntarioen erregistroa.

17. Epe prozesalak eta epaitegiko ekintzak berrabiaraztea

463/2020 Errege Dekretuak epe prozesalak, jurisdikzio guztietan, eten zituen alarma egoera irauten zuen bitartean. Dena den, epe batzuk berrabiarazi dira apirilaren 28ko 16/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluekin bat (kautelazko neurriak, sartzeko baimenak, lan arloko premiazko epaiketak...).

Alarma egoera altxatzen delako edo deseskalatzearean faseetan horrela zehazten delako, epe prozesalak berrabiaraziko dira. Epaitegietan dauzkagun espedienteen epeak berrabiaraziko dira eta Udalak ekintza judizialak egikaritu nahi baditu aukera izango du.

Hala ere, gaur egun ere Udalak idatzi, erantzun, espediente edo salaketak aurkeztu ahal ditu epaitegietan nahiz eta epeak ez hasi zenbatzen.

Horretaz gain, kontuan izan behar da behin alarma egoera altxatuta administrazio errekurtsioak ez ezik, salaketa judizialak ere handitu daitezkeela. Batez ere, langileria arloan eta kontratazio arloan. Ildo horretatik, aintzat izan behar da Justizia Administrazioan jada aurreikusten dela ekintza plan bat onartzea, besteak beste, lan arloan eta auzi-administrazioen arloan suertatuko diren salaketa guztiei aurre egiteko. Horrela jasotzen da 11/2020 Errege Lege dekretuaren 19. Xedapen gehigarrian.

18. Tributu arloko epeak eta berrabiaraztea



Bermeoko Udalak 11/2020 Errege Dekretuan oinarrituta, tributu arloko epeak atzeratu, eten edo itzulketa proportzionalak egingo dituela erabaki du. Gainera, tributuak ordaintzeko egutegi eguneratua onartu du.

Baina, horretaz gain, bestelako tasen ordainketaren inguruan zein neurri hartu daitezkeen aztertu nahi du (terrazen tasetan, sastar batze tasetan...).

Hartutako erabakiak exekutatu behar dira, eta adibidez, eman ez diren zerbitzuen ondorioz edo erabili ez diren jabari publikoen ondorioz, itzuli beharreko prezio publiko edo tasen zenbatekoak finkatu eta itzuli beharko dira.

19. Aurrekontuan egokitzapenak egitea

2020ko aurrekontua onartu zenean, ezin izan zen aurreikusi COVID19ak izan eta izango duen eragin ekonomikoa. Horregatik, aurrekontuan dagozkion egokitzapenak egin beharko dira. Izan ere, aurrekontuan egokitzapenak egitean kontuan izan behar da aurreikusita egon ez diren gastuak, aurreikusita egon diren eta egin ezin izan diren gastuak eta sarreretan izango den beherapena.

Horretaz gain, Bizkaiko Foru Aldundiarekin koordinatuta dagokion informazioa eman beharko zaio administrazio orokorrari.

8/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. artikulua araberan, udalen superabitaren zati bat COVID19aren eragin sozialei bideratzea ezarri da. Gure kasuan, Bizkaiko Foru Aldundiak ezarritako instrukzioekin bat egin beharko da.

20. Gardentasuna eta informazioa jasotzea



Sinadurea eta data



Gardentasunaren ikuspuntutik betebeharrak bete direla konprobatu behar da, publizitate aktiboaren ikuspuntutik (ofizioz egiten dena) eta publizitate pasiboaren ikuspuntutik (eskaera baten ondorioz eman behar dena).

Publizitate aktiboa dela eta, Gardentasun eta Gobernu Onaren Legearen 6-8 artikulua betetzen jarraitu dela konprobatu behar da.

Horretaz gain, interesgarria da alarma egoeraren bitartean Udalak hartu dituen neurri eta erabakien hedapena egitea, eta hedapen hori egiteko komunikazio sistema egokiak ezartzea. Ahaztu barik erabaki horien artean, aurretik komentatutako emergentziako kontratuak ere jaso behar dira.

Publizitate pasiboa dela eta, alarma egoeraren aurretik, bitartean edo ondoren informazio eskaerak egon dira eta horiek izapidetu behar dira.

21. Hartutako erabakiak bertan behera uztea edo egoera berriaren publizitate ematea

Aurretik komentatutako gaiez gain, Udalak zenbait erabaki hartu ditu alarma egoerak irauten duen bitartean indarra izateko. Adibidez, jabari publikoa erabiltzeko baimenak bertan behera uztea, ehorzketetan aforoak ezartzea, kanposantuko erabilera mugatzea, ezkontzak ez egitea, azokatxoa bertan behar uztea edo udal azokan neurri bereziak hartzea.

